

# AURKEZPENA

Egungo gizarteak sexua gai debekatutzat hartzen du. Orain dela urte batzuekin konparatuta, argi dago egoera hobetzen ari dela baina oraindik lan asko dago egiteko. Informazioa badago, baina lotsagatik edota gizarteak norbanakoengan gainjartzen duen presioagatik batzuetan zaila izaten da zuzen informatzea. Informazio falta hori oso kaltegarria suertatu daiteke erlazio sexualak izaterako orduan eta arazo ugari sor daitezke horren harira.

Egoerari behatuta hori konpontzeko zerbait egin beharra zegoela erabaki genuen, eta proiektu bat lantzen hasi ginen. Sexuak gai debekatua izateari uztea zen guk nahi genuena, horri buruz libreki hitz egin ahal izatea, edozein duda suertatu ezker beldurrik gabe azaltzea eta informazio zuzena eskuragarri izatea. Horregatik webgune bat sortzea bururatu zitzaigun.

Gu Paula, Amaya, Anne, Irati eta Uxuri gara eta Urretxu-Zumarraga ikastolatik gatoz Start Innova proiektuan parte hartzera. Gure proiektua SexInf webgunea izango da, honek helburutzat gazte jendeak sexuaren arloarekiko informazio gehiago eta beraien dudak zein iritziak libreki adierazteko aukera izateko toki bat sortzea izango da.

Proiektu honen bidez gazte komunitate elkartuago bat lortzea izango litzake helburua. Webguneak arrakasta izango balu sexuari buruz mintzatzea errazagoa suertatuko litzaioke gazte jendeari, galdera denak erraztasun handiz erantzutea posible izango litzake eta kontsekuentziz sexuarekin lotuta arazo, istripu eta hanka-sartze larri askoz gutxiago egotea lortuko genuke.

